

HITZAURRE GISA

Arrunt txalogarri iruditzen zait Pamielak bere gain hartutako lan gaitza: Jose Maria Jimeno Jurioren obra osoa 62 liburukitan argitaratzea.

Eta ohore handia da enetzat Roldanen eskabidea betetzea. Alegia, *Toponimia navarra. IX. Tafalla* (1989an Eusko Ikaskuntzak argitaratua) deritzonaren aurkezpena prestatzea.

Ez dut nik esango Jose Maria Jimeno Jurioren obra eskerga guztia hementxe, neure etxean, daukadanik. Sinetsi ezinezko balentriaz harrotzea litzateke hori!

Jose Maria Jimeno Jurioren lan mordoxka bat badaukadala esaten badut, aldiz, egia baizik ez dut esango.

Jose Maria Jimeno Jurioren ekarpena miresgarria da. Nekagaitz artxi-boetan miatuz, eta sekulako datu ezezagun piloa bilduz, Nafarroaren irudia aldatu du. Arturo Kanpionek lehenago abiatu zuen aldaketa beste modu batera osatuz, zinez, Jimeno Jurioren ondoren Nafarroa Euskal Herriaren ardatz bihurtu da.

Nafarroa aldera joan, eta hantxe, aukera gertatu ahala, «Navarra. Temas de Cultura Popular» saileko liburuxkak erosten nituen. Hauetan izan nuen lehenengoz Jimeno Jurioren berri. Hementxe dauzkat, adibidez, *La guerra de la Independencia* (124), Erriberri buruzko biak (90 eta 93), *Ujué* (63), *Roncesvalles* (57), *La peregrinación a Compostela* (96), *Guerra de la Navarrería* (87), *Iranzu* (69), *Navarra y Cataluña* (151), eta abar.

Baina salgai aurkitzen nituen irakurgaiez gain, laurogeiko hamarkadan barrena, Jose Mari buruz buru eta adiskide gisa tratatzeko zoria izan dut.

Eta oraingo hauxe izan daiteke parada ona xehetasun batzuk kontatzeko.

1995eko azaroaren 25ean *Historia de Pamplona y de sus lenguas* bidali zidan Amasako «Bidarte» ene etxera, bere eskuaz eskainia.

Bihotzez eskertu nion liburu bikaina, eta arretaz irakurria eta azpimarratua dut.

Handik urte eta erdira, 1997ko ekainaren 2an, eskaini zidan beste liburu bat modu berean: *Navarra. Historia del euskera* (Tafallan, maiatzean kaleratu berria).

Urte hartantxe ari nintzen ni buru-belarri *Putzu* neure nobela historikoaren idazketan murgildurik.

Neure burua «girotzeko» Lizarrara eta inguruetara joan nintzen behin eta berriz. Eta Egako hiriko kaleak, komentuak, zubiak, bisitatu nituen.

Bigarren Karlistadakoan Karlos Setimok bere bizilekua Lizarrako plazan kokatu baitzuen. Eta banekien bere etxeko balkoitik beretik entzun ohi zuela meza.

Nondik, ordea?

Eta Jose Maria Jimeno Juriogana jo nuen: «Joxe Marik bazekikek –nik neure artean– honetaz zerbait. Ziur!».

Era halaxe izan zen.

Joxe Mari Espartzaren bitartez iritsi zen Amasako nire etxera, Jimeno Juriok hala eskaturik, argitaratu berria zeukan liburua: *Estella y sus calles*. Bidalketak 1998ko urtarrilaren 3ko data darama.

Egondako etxean ezarritako xaflaren berri ematen zidan (49. orrialdean): *Residencia de D. Carlos VII / de Borbón durante la / última guerra carlista / s. XVIII*.

Bigarren karlistada, jakina, XIX. mendean gertatu zen.

Jimeno Juriok ohar labur hau besterik ez zuen erantsi bere testuan: «*el entallador adelantó un siglo [dicha presencia]*».

Putzuren irakurleak baiets dezakeenez (XVIII. kap.) pozarren baliatu nuen nik xehetasun hori neure nobelan.

Hots, *Putzu* 1999an kaleratu zenean, Jose Maria Jimeno Juriorei bidali nion ale bat, xehetasuna eskertuz.

Liburua Iruñean ongi jaso zuela erantzun zidan. Eta oraingoan beste opari batekin batera: *Artajona. Toponimia vasca / Artaxoa. Euskal Toponimia*. Kolore-foto ederrez eta Patxi Salaberri Zaratiegiren ohar jakintsuz jantzia. Atera berri zuen liburua *Altaffaylla Elkarteak* (1998).

Eta oraingoan eskaintza euskaraz egin zidan: «*Putzu* nire eskutartean, egilea buruan, eta bere adiskidetasuna nire bihotzean / Jose Mari. / Eta mila esker *Garan* idatzitako goraiamenengatik».

Ikerlan ikaragarriaren akiduraz, nik uste, handik bi urtera, 75 zituelarik, utzi gintuen artaxoar hilezkoak.

Eta honezkero, interesgarri izan daiteke Jose Maria Jimeno Jurioren datu bilketa itzela nola burutzen zuen adibide batzuen bitartez azaltzea.

Eta ziplo datorren hitza hauxe da: LANA. Ez baitzuen artaxoar iker-tzaileak inolako «errezeta» miresgarririk erabiltzen. Xehetasun mamitsuaren arrastoa izan, eta lanaren poderioz, irakurketa nekagaitzaz, eta artxiboetan

bere orduak eta bizia bera eskaini. Horrela lortzen zituen Nafarroaren irudia errotik aldatzen zuten argi izpiak.

Has gaitezen hastapenetatik: Artaxoa, 1969.

Gure gizonak 42 urte zituen, bere sasoi betean.

Eta bere jaioterrian bertan aurkitu zuen perla soziolinguistiko hau (ikus *Fontes Linguae Vasconum*, 3, 1969; 385. or.). Artaxoarak gutxienez XIX. mendera arte erabili izan dute euskara. Garbi agertzen da «El euskera en la toponimia de Artajona» artikuluan, 371.-385. orrialdeetan.

Nola frogatuko? Hona hemen iturria: *Archivo Parroquial de Artajona, Libro 4º de Difuntos, fol. 282v*. Ez zituen folio bakan batzuk irakurri.

Alegia, ehunka esku-folio egonarriz miatu ondoren, horra hor Jose Maria Jimeno Juriok bilatzen zuen datu xume baina mamitsua. Maximo Egues apaizak, sortzez artaxoarra, euskaraz konfesatu zuela Frantzisko Ekai zeritzon izeneko, «navarro montañés»; beronek euskaraz konfesatu nahi izan zuelako. Gertaera 1777koa.

Hots, Aita M. Egues hura 1803an hil zen.

Eta euskaraz zekien azkeneko artaxoarra bera zela pentsatzeko ziorik ez dagoenez gero, Artaxoan XIX. mende hasierako urteetan gutxienez, bertako adinekoen mintzabidea euskara zela esan daiteke eta esan behar da.

Jose Maria Jimeno Jurioren ondorio hau berretsirik, are zabaldurik ere, gertatu da azken urte hauetan geroztikako ikerketen ondorioz.

Beste adibide bat: Urraulgoiti ibarra euskalduna izan da XIX. mendera arte.

Urraulgoiti hau Irunberriz iparraldean dago. Herrixka ñimiño osatutako eskualdea da, jendegabetua: Adoain, Arangozki, Aristu, Elkoatz, Ezkanitz, Gindao, Imirizaldu, Ozkoidi, Zabaltza, Zerrenkao.

Nola jokatu zuen Jimeno Juriok?

1785ean auzi luze bat egon zela jakin zuen; bi apezek eskatu baitzuten beren parrokia-lana Zerrenkao eta Gindaorako.

Txostena Iruñeko Elizbarrutiaren Artxiboan zegoela jakin, eta hara jo zuen Auziari buruzko 217 eskuzko folioak arretaz miatzera (*Car. 2.354, núm. 16* erreperetan epaiketaren orri multzoa), eta ondorio hau funtsatu zuen: XIX. mende haserakoan beharrezkoa zen apezek euskaraz jakitea; urraulgoitiarrek ez baitzuten erdara ulertzen.

1785. urtean bi apezek eskatu zuten lanpostua. Euskalduna zen bata, zaraitzuarra, Juan Montes izeneko; eta erdalduna bestea, Adan Arbizu ustaiztarra. Zerbait bazekiela ondorioztatzen da testuaren azterketaz. (Ikus «El vascuence en Urraúl Alto, 1785», *Fontes Linguae Vasconum*, 58an, 227.-245. or.)

Aita Arbizu erdaldunak, auziaren luzamenduak baliatuz, euskara ikasi zuen nonbait, non eta nola azaltzen ez bada ere; eta plaza hartzeko azterketa gainditu zuen.

Aita Montes gorzatarrak salaketa egin zuen: «*se ha cometido un atropello de la verdad*».

Zerrenkaon eta Gindaon beharrezkoa zen euskaraz jakitea.

Horrela finkatzen zituen Jimeno Juriok bere iritziak. Beste batzuetan normalean irakurtzen ez diren lan monografikoetan perla bilatzen.

Hau adibidez, Ameskoaren euskalduntasunaz.

Bakedao euskalduna zen gutxienez XVII. mendean.

Kasu honetan Jose Maria Jimeno Juriok ez zuen datua artxiboetan aurkitu, liburu batean baizik: Luciano Lapuente Martínez, *Las Améscoas*, 1990; 74. or. —«*Se ordenó al cura de Baquedano (Améscoa) que enseñara las oraciones en la lengua que entienden, es decir la Bascongada, que es la común del valle*». (*Navarra. Historia del euskera*, 80. or.)

Jose Marik ez baitzituen artxiboak bakarrik begiratzen!

Horrela frogatu zuen, Araba euskaldunari buruz Jose Maria Jimeno Jurio hil ondoren ezagutu dugun Lazarragaren liburua aurkitu baino lehenago, ez zela egia Nafarroako aitonsemeek aspaldiko denboretan euskaraz ez zekitenik.

Luis de Beaumonten kasua izan daiteke adierazgarriena (ikus *Navarra. Historia del euskera*, 65 eta 295). Juan Lasterra izeneko nafartarrak euskaraz esan zion Kondestable eta Leringo hirugarren Kondeari: «*Que sea bien venido su señoría si venía con licencia del Rey*». Hots, honek euskaraz erantzun zion: «Nik ere horrela izatea nahi nuke».

Bide beretik 1415ean Zalbako Matxinek oso ezagunak diren lehenengo euskal esaldi batzuk utzi zizkigun (Leizarraga baino aise lehenagokoak).

Eta bide berberetik Isabel Bidaurretaren kasua (oraingoan Florencio Idoateren testuetan topatua). Andere kapare hark ez zekien erdaraz batere (ikus *Historia del euskera*, 100 eta 297).

Jimeno Jurioki esker dakigu gaur egun, bestalde, herriz herri eta ibarrez ibar, euskararen erabilpena noiz eta nola eten den.

Hor dauzka irakurleak bere esku zerrenda zehatz horiek.

Hauxe, adibidez, *Historia del euskera* liburuan (208) 1878. urteari buruz eskaintzen zaiguna:

Sorauren, Eusa, Orrio, Makirriain (Ezkabarte);
Ballariain, Larrageta, Elkarte, Oteitza (Antsoain);
Itza eta Oltza Zendeak;
Azantza, Amunarritz (Goñi);
Argiñao, Ibiriku (Deierri).

Edota, atzerago, XVII. mendekoa:

Auza, Larraintzar (Ultzama);
Ziganda (Atetz);
Muru Asterain (Zizur);
Ezkirotz (Galar);
Ziritza, Etxauri (Etxauri);
Saldise (Olló);
Legarda, Uterga, Olkotch (Iltzarbe);
Burlata (Egues);
Muru Artederreta (Tiebas);
Abintzao, Izko (Ibargoiti);
Arrakas (Nabaskoze);
Ezporogi (Nafarroako Bizkaia);
Bakedao, Eulate (Ameskoa);
Iturgoien, Muzki (Gesalatz);
Urbiola (Iguzkitza);
Etxague, Orisoain, Untzue (Orba).

Jose Maria Jimeno Juriok bere lana harrigarriro burutu zuen.

Guri dagokigu orain jakinduria eta uzta hori guztia geure herriari helaraztea.

TXILLARDEGI